

Sagarra

Batzuetan ez degu etxeko berri ondo jakiten. Etxean zer daukagun konturatu gabe bizitzen gera. Sagarrak makiñabat urte izango ditu Euskalerrian, eta ezagutzen ez duanik ez da izango gure artean. Jan ez duanik ere ez, baiña ez det uste sagarra ondo ezagutzen degunik. Ez dakigu ondo bere berri.

Janari bezela serbitzua pranko egin digu sagarrak. Gosea pixkabat iltzeko etzitzaigun gaizki etortzen garai batean. Zenbat tripazorri ixildu ote du sagarrak Euskalerrian, azaldu zanetik ia oraiñ arte?

Igali asko jaten dan denboran bizi gera. Janari oni garrantzia ematen zaio gaur eta nai aiña igali mota dauzkagu aukeran. Beste era bateko denborak ezagutuak gera, eta ez ganbarako sagar pillari ikustaldi gutxi egindakoak. Ortzak garbitzeko ona omen da sagarra. Baserrietako ume koskorren ortzak etzuten garbitu bear aundirik izango udazkenetik aurrera, ganbaran sagarrak irauten zuten bitartean.

Aizeak lurrera botatzen ziztuan sagar pizak ere izaten zuten zeñek bildua. Zozoak saiatzen ziran jaten, baiña bai neska-mutikoak ere eskolatik etxerakoan. Orduko sagarrak etzuten izaten oraingoak bezelako zuritu bearrik eta garbitu bearrik. Azal eta guzti janda ere etzuten gaitzik egiten. Janari sanoa izan nunbait.

Eta alaxe izango da, sagarrari buruz egindako zenbait ikasketak diotenez. Irakurri dittekenez, beste janaririk gabe gizonari denbora-aldi batean bizirik eutsi lezaiokeen igali bakarra, sagarra da. Bizirik eutsi bakarrik ez, gizendu ere egingo luke lanik edo nekerik egin ezean.

Bere bereizgarri onenetako bat, jan-ondo ona izaten, digestioa egiten, laguntzea da, eta esteetako kutsadurak kentzea ere bai. Beerakoa sendatzeko bezela ondo etortzen da barru-legortasunarentzat. Gibelari bere eginkizuna betetzen laguntzeko ere oso ona izan bear du. Baita «ácido úrico» ari bere neurrian eusteko ere. Odol koipetsuari bildur aundia zaio gaur. Gaitz onek zearo kezkatuak dauzka sendagilleak, kolesterolak egiten dituan kalteak ikusirik. Orri kontra egiteko ere ona omen da sagarra. Gure gorputzak bear dituan zenbait sustantzi eta bitamina asko omen dauzka, eta gaiñera gaiñerakoak. Ez da errez danak esaten, baiña besterik gabe ere bada sagarra aintzakotzat artzeko lain.

Ez daukagu ba gugandik urruti. Gure lur onek sagarrak asko emango luke artaratu ezkerero. Nunai dauzkagu sagastiak. Baiña zertarako, zaintzen ez baditugu? Ez iñausi eta ez ezer, zuaitz asko leenagoko aiton aiek aldatu eta besterik gabe daude. Baserrian sagarondoai begira egoteko asti gutxi izaten dala ere, esan bearra dago.

Eskatzea libre omen da eta ez ematea ere bai. Zenbait Erakundek, Foru-Aldundiak eta abar, sagar-ondo berriak landatzeko laguntzak ematen dituzte. Zaarrak berritzeko ez ote lukete zerbait emango?

Langintz au ikasteko errezetasunak badaude, eta lan ori egiteko astia daukatenaz ez gutxi.